



**« Euskal itsasbazterra » IZE-ko Erakunde kontseilua  
2014ko abenduaren 3ko bilkura Baionan**

**Erabaki bilduma**

**Présents :**

- Marie-Christine Aragon, Euskal Itsasbazterra GIS/IZEko Lehendakaria, Pirinio Atlantikoetako kontseilari nagusia, Merkataritza, Artisautza, ETE-EMT, portu eta Arrantza eta Itsasbazterreko politiken arduraduna
- Marc Bérard, Euskal Kosta Aturri Hirigune elkargoko ordezkaria
- Mike Bresson, Ingurumen Zuzendaritza, Euskal Kosta Aturri Hirigune Elkargoa
- Sophie Carrillo, CPER Europa Poloa, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia
- Alexandra Colin, Ingurumen Poloa, Hego Lapurdiko Hirigunea
- Matthias Delpy, Rivages Pro Tech
- Jeremy Dugor, CASAGEC
- Mathieu Dutilh, Garapen ekonomikoa era Ikerketa Zuzendaritza, Euskal Kosta Aturri Hirigunea
- Axelle Fronzes, Ura eta Itsasbazterra Zuzendaritza, Euskal Kosta Aturri Hirigunea
- Philippe Gaudin, INRA
- Bernard Gourgand, Ingurumen Zuzendaritza, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia
- Jeanne Idiartegaray Puyou, Hego Lapurdiko Hiriguneko ordezkaria
- Ainhoa Iraola, Zuzendaria, Gipuzkoako Foru Aldundia
- Guy Lafite, Euskal Kosta Aturri Hiriguneko Lehendakari ordea
- Albert Larrousset, Hego Lapurdiko Hiriguneko Lehendakari ordea
- Julien Mader, Azti Tecnalia
- Cyril Mallet, BRGM
- Mathilde Monperrus, UPPA
- Pantxika Othéguy, Rivages Pro Tech
- Caroline Sarrade, Ingurumen Zuzendaritza, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusia
- Jacques Veunac, Euskal Kosta Aturri Hiriguneko Lehendakari ordea

**Excusés :**

- Stéphane Abadie, UPPA
- Jean-Daniel Baladès, Aholkularia
- Martine Bisauta, Euskal Kosta Aturri Hiriguneko ordezkaria
- Manuel De Lara, Hego Lapurdiko Hiriguneko Lehendakari ordea
- Kotte Ecenarro, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko 1. Lehendakari ordea, elkartasunen arduraduna
- Philippe Juzan, Donibane Lohizuneko kontseilari nagusia
- Bernard Soudar, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko Lehendakari ordea Ingurumen politiken arduraduna
- Cathy Truffert, BRGM
- Adolfo Uriarte, Azti Tecnalia
- Thierry Winter, BRGM

### **Bilkuraren gaia:**

Bilkura honen helburua « Euskal Itsasbazterra » IZE-ko lan desberdinen aurrerapenen egoera aurkeztea da.

Ondoko puntuak proposatuak dira gai ordenean (**Ik. Saioan banatu diaporama eta dokumentua**):

- IZE-ko barne ibilmolde araudiari buruzko notaren balioduntzea
- Koordinatzaile zientifikoaren kontratatzeari buruzko puntu bat
- Bainatzeko uren kalitateari dagozkion ikerketa proiektuei buruzko puntu bat
- IZE-ko datu plataformako pilotoaren aurkezpena
- Orotariko gaiak.

### **Aurkeztutako puntu desberdinen ondoko elkarrizketak beherago laburbilduak dira.**

#### **1- IZE-ko barne ibilmolde araudiaren balioduntzea (Ik. Saioan banatu dokumentua)**

Aragon Andereak (Kontseilu Nagusia) IZE-ko ibilmoldea eta gobernantza segurtatzen dituzten 4 instantziak oroitazten ditu, erran nahi baita:

- 1-erakunde kontseilua (gidaritza)
- 2-idazkaritza teknikoa (animazio eta koordinazioa)
- 3-kontseilu zientifikoa (egitasmoen ebaluaketa)
- 4-gaikako lan taldeak (egitasmoen aurkitzea).

« Euskal itsasbazterra » IZEko partaide kideen oharren ondorioz, aldaketa batzuk proposatuak dira bi partez osatu « Euskal itsasbazterra barne ibilmolde araudian »: ibilmolde modalitateak eta partaide pribatuen parte hartze modalitateak.

Saioan aurkeztu eta hemen agertu aldaketa horiek, saioan banatu dokumentuan idatziak dira.

### **Ibilmolde modalitateak:**

#### **Helburua:**

1. orria: « Euskal itsasbazterra » IZE-ko ibilmoldeari buruzko aitzinsolas bat gehitua (instantziak eta egitasmoak): « *Barne araudi honen helburua, « Euskal itsasbazterra » IZE-ko ibilmoldea, besteak beste haren instantzia eta haren egitasmoena zehaztea da* ».

#### **Egitasmoen ebaluaketa Kontseilu zientifikoaren eskutik**

3. orria: « *Honen kideen hautatzeko moldeak, eta honen osaketa, IZE-ko Erakunde kontseiluak egiazkotzen ditu.* »

#### **Egitasmoen aurkitzea gaikako taldeen baitan**

4. orria: « *Gaikako talde horietatik ateratako egitasmoak ez dituzte IZE-ko kide guztiek edo hauetako batzuk sistematikoki haien gain hartuko.* »

#### **Koordinatzaile zientifikoak burutu beharreko segipena**

4. orria: « *IZE-ko partaideak entzunez, ikerketa egitasmoen gauzatzean esku hartzen du, IZE-ko kideen arteko lankidetzaren partaidetza ahal bezain bat antolatuz eta egitasmo hauen tekniko eta finantza muntaketan parte hartuz.*

*IZE-ko partaide zientifikoek igoarazi datuak osatzen ditu, beila zientifiko baten bitartez, lan hipotesiak formulatu eta menturazko ikerketa gaiak azalerazteko gisan « Euskal itsasbazterra » IZE kolektiboaren probetxuko.*

## **Partaide pribatuen parte hartze moldeak, IZE-k kudeatu egitasmoen baitan**

Albert Larrousset-ek (Hego Lapurdiko Hirigunea, ASPB/HLH) nahi du, gerora, 6. orrian « *partaidetza ekimen horretatik atera daitezkeen adibide desberdinetako partaide pribatuen parte hartze moldeak.* » formulazioa zehaztua eta arreta handiz jarraitua izan dadin.

Marie-Christine Aragon-ek (Kontseilu Nagusia) iradokitzen du Idazkaritza zientifikoak zentzu horretara doan proposamen bat egin dezan datorren Erakunde kontseiluaren kariatara.

## **Aldaketak eta indarrean jartzea**

Bi paragrafo osagarri sartuak dira IZE-ko barne araudi horretan.

### **Aldaketak**

*“Barne araudi honen aldaketa oro onartzen du Erakunde kontseiluak, bertan edo ordezkatuak diren kideen ordezkarien gehiengo sinplean, Lehendakariaren edo kide baten proposamen baten ondorioz.”*

### **Indarrean jartzea**

*“Barne araudi hau indarrean jarria izanen da Erakunde kontseiluak, bertan edo ordezkatuak diren kideen ordezkarien gehiengo sinplean, onartu duten egunean.”*

Marie-Christine Aragon-ek (Kontseilu Nagusia) IZE-ko Erakunde kontseiluko kideei proposatzen die barne araudi horren bozkatzea proposatu aldaketak sartuz.

- **AHO batez onartua.**

## **2- Koordinatzaile zientifikoaren soslai eta kontratatze modalitateak**

Caroline Sarrade-k (Kontseilu Nagusia) oroitarazten du kontratatze honen helburua, IZE-ren baitan aditutasun zientifikoa eta teknikoa segurtatzea, kideekin loturan ikerketa egitasmoak agerraraztea, datuen plataforma biziaraztea dela (datu baliagarriak egunero zaindu kudeatzaileentzat, ikuspegi zientifiko batekin egiaztatu, ...).

Koordinatzaile zientifikoaren kontratazea lehentasun bat da IZE-ren markoan (datu plataforma 2015eko maiatzan estrenatzekoa, ikerketa gai batzuen agerpena,...).

Dagokion postu soslai jadanik aurkeztua izan zen azken Erakunde kontseiluan, 2014ko uztailan.

IZE-ko kideak abisatzen ditu bi hiriguneei (Hego Lapurdi eta Euskal Kosta Aturri) bai eta Kontseilu nagusiak jadaniko diru mailako parte hartze bat urte baterako erabaki dutela, 2 100€ eta 2 500€ oinarritzko soldata garbi batekin.

Aurreko Erakunde kontseiluan, aipatua izan zen ikerketa unibertsario arloan lan egiten eta esperientzia hau beste IZE batzuen baitan lortu duen ADERA-k (1901 legepeko elkarte) kudeatuko zuela.

Marie-Christine Aragon-ek (Kontseilu Nagusia) oroitarazten du aterabide honek egokiena dirudiela IZE ez delako egitura juridiko bat, eta beraz, ezin duela soldatadun bat zuzenki kontratatu. ADERAREN kudeaketa ere « neutroena » da IZE-ko partaidetza osoa ordezkatzeko.

ADERA zuzenbide pribatuko egitura bat izanik, zehaztua da kontratatzea, egitasmo baten iraupenari (hiru urte beraz « Euskal itsasbazterra » IZE-rako) lotua den « obraleku lan kontratu mugagabe » motako kontratu baten markoan eginen zela.

Erakunde Kontseiluko kideei galdegiten zaie ADERA-ri zuzendu eskaera onartzea, kontratatze hau 2014ko bukaera/2015eko hasieran abian ezartzeko gisan. Horretarako, proposatua da IZE-ko Lehendakariak izenpetu gutun bat zuzendua izan zatzaiei datozen egunetan.

- **AHO batez onartua.**

IZE-ko kide diren egituren (Hego Lapurdiko eta Euskal Kosta Aturriko hiriguneak, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kontseilu nagusia) hautetsi ordezkariak dute hautagaiaren hautatzeko epai mahaia osatuko.

Eskuratu hautagaitzak erakunde kontseiluko kide guztiei helaraziko zaizkie, eta hauek kontrataze honen berri haien harreman sareei ematen ahal diete.

Albert Larrousset-ek (HLH) nahi du IZE-ko kideek haien iritzia emateko aukera izan dezaten proposatuak diren CV-*ei* buruz.

Philippe Gaudin-ek (INRA/IAIN) bat egiten du ohar honekin eta proposatzen du ordezkari zientifiko batek parte har dezan epai mahai horretan. Azpimarratzen du ere partaide zientifikoek esku har dezaten hautagaien aurre hautaketan.

Ondotik zehaztu bezalako hautaketa prozedura bat proposatzen du:

- 1: Hautagaitzen sailkapen bat kontratazen duen instantziaren eskutik (kasu honetan ADERA)
- 2: Gaitasunei eta/edo koordinaketa zientifikoari buruzko txosten baten idazketa
- 3: Txostenaren transmisioa kontratatze batzordeari.

Marc Bérard-ek (Euskal Kosta Aturri Hirigunea, ACBA/EKAH) berresten du hobe dela aurretik « filtratze » bat burutzea eta IZE-ko eragile zientifikoek etorri beharreko hautagaitzak aurrebaliodun egin ditzaten.

Marie-Christine Aragonek (Kontseilu Nagusia) ohar hauekin bat egiten du: idazkaritza tekniko eta interesatuak diren IZE-ko zientzialariak bilduko dira ADERA-k ekarri aurre selekzioaren ondotik eta iritzi bat helaraziko diote epai mahaiari.

Marie-Christine Aragonek IZE-ko kideei metodologia hau onartzea proposatzen die.

- **AHO batez onartua.**

### **3- IZE-tik atera ikerketa egitasmoei buruzko puntua**

Bainatzeko uren kalitateari eskaini Gaikako taldearen topaketaren kari, 8 egitasmo agerian emanak izan dira. IZE-ko idazkaritza teknikoak, egitasmo hauek 3 multzo desberdinetako sailkatze bat nabarmentzen zuen nota tekniko bat idatzi du: epe laburreko/abiatzeko prest diren egitasmoak, lan gehiago merezi duten edukikoak eta IZE-ri helaraziko zaizkion emaitzakoak (*Ik. saioan banatu diaporama*).

Joan den uztailleko IZE-ko Erakunde kontseiluan onartu bezala, iritzi hau kide diren kolektibitateetako hautetsiei aurkeztua izan zaie, eta onartu dute. Egitasmoen sailkatze hau gaur egun, Erakunde kontseiluko kide guztiei proposatzen zaie baliiodun egin dezaten.

Zehaztua da datorren koordinatzaile zientifikoaren kontratatzeari esker, egitasmo hauek, molde konkretuagoan aurrera eramanez direla.

Mathilde Monperrus-ek (UPPA) *Desinfix eta Micropolit* egitasmoak laburki aurkezten ditu.

Albert Larrousset-ek (ASPB) galdegiten du azken egitasmo honi esker araztegien mailan sartzen diren mikroutsagarriak tratatu eta ezaba daitezkeenez.

Mathilde Monperrus-ek (UPPA) adierazten du mikroutsagarri batzuk ez badira araztegiatan tratatzen, bi aterabide badaudela: edo produktu kimiko batzuen erabilpena hasieratik murrizten dugu, edo tratamendu araztaile egokiak plantan ezartzen ditugu. Kasu guztietan, « Micropolit » egitasmoaren helburua, agertzen diren kutsagarri hauek detektatzen lagun dezaketan ikerketa metodoak garatzea da, Uraren Zuzentarau Koadroak agindu mugen arabera.

Erakunde kontseiluaren iritzia eskatzen du Bilboko Euskal Herriko Unibertsitateak IZE-n parte hartzean, UPPA-k molde gero eta hertsiagoan lan egiten duelako bertako ikerketa taldeekin.

Marie-Christine Aragonek (Kontseilu nagusia), lehen denbora batean, Euskal Herriko Unibertsitateko ordezkariak IZE-ko Kontseilu zientifikoaren osaketa egunean sarraraztea proposatzen du.

Philippe Gaudin (INRA) eta Mathieu Dutilh-ek (Euskal Kosta Aturri Hirigunea, ACBA/EKAH) zehazten dute EKAH-k sustengatu eta ekaitzek Angeluko hondartzetan (behaketa gune lehenetsia) duten eragina aztertzeko xedea duten « *Datuen asimilazio eredu baten bitartezko balioztapen batimetriko* (modelizatze hidraulikoa) » egitasmoaren emaitzak IZE-ri helarazten ahalko zaizkiola.

#### **4- Dat mutualizatuen plataformaren aurkezpena (Ik. saioan banatu diaporama)**

Plataformaren garapena kasik bukatua da. Erabiltzaileek IZE-ren datu propioetara heltzen ahalko dira baina kanpoko guneetan aterpetu datuetara ere.

Plataformaren garapena segurtatzen duen hornitzailea den Magellium sozietateak lehen piloto bat eskuetaratu du azaro hasieran. Orain honen funtzionaltasun guztiak test-entseguetan erabili behar dira, bai eta haren ergonomia landu eta data bat adostu « bainatzeko uren kalitatea » modulu bat abian ezartzeko.

Caroline Sarradek (Kontseilu nagusia) zehazten du plataformako erabilpen hitzarmen bat eraikitzea dela bi Hiriguneak eta Kontseilu nagusiaren artean: EKAH-k haren ardurapean hardware izanki, plataformaren garapenaren obratzea KN-ak eta HLH-ak elkarren artean kudeatzen dutelarik. Oroitarazia da Magellium-en hornikuntza 2015eko bukaeran amaitzen dela.

#### **5- Orotariko gaiak**

##### **5-1- PO FEDER 2014-2020 - Sophie Carrillo, Kontseilu nagusia (Ik. honi erantsi diaporama)**

Hitzaldi honek, IZE-tik atera daitezkeen egitasmoetarako europar fondo horrek ekar litzazkeen aukerak aurkeztea du helburu.

2014-2020 garairako FEDER Programa Erabilgarria (PE) engoitik abian ezarria izan da. Fondo hauen programazioa Akitania Eskualdeko kontseiluak gidatuko du (miliar 1 €).

Fondo hauek ardatz desberdin batzuei begira banatuak dira. Bakarrik 1 eta 4. ardatzek erantzun diezaiekete IZE-ren markoan garatu tematikei.

1. ardatzak « Ikerketa aplikatua, Garapen teknologikoa eta Berrikuntza » atal bat barneratzen du baina datozen egitasmoak, IZE-ko gaiekin egokitzeko zailak diruditen 11 tematikak baldintzatzen dituen « Stratégie S3 » delakoarekin bat egin beharko dute.

4. ardatzak egokiena dirudi IZE-k ekartzen dituen egitasmoekin lotu tematikei, uholde/higadura/ur estaltze/ura eta energia berriztagarrien politika hunkitzen duelako.

Deitoragarria da gaur egun « Itsasoa » gaia ager ez dadin PO FEDER-aren ardatzetan. Stratégie S3 berriekusia izango da bi urteren buruan, erronka premiatsu hau lehen lerroetan jartzeko eta 1. ardatzako 11 gaiak bestelakotzeko.

Beste finantza tresna batzuk aukera daitezke. Mugazgandiko europar fondoak (POCTEFA) adibidez, eta horretarako Programa Erabilgarria (PE) burutzekotan da, bai eta Horizon 2020 (Ikerketa) eta LIFE (klima atala) gisako Europar Batzordeak gidatu programa komunitarioak ere, edo oraindik datorren Estatua/Eskualdea Kontratua Plana ere (uholde arrisku eta uraren kalitate atalak).

Denbora gordetu beharko da programa desberdin hauek arakatzeko IZE-ren barnean tratatu gaiei begira.

Kontseilu nagusiko CPER/EEKE Europa zerbitzuak adierazten du IZE-ko kideek harengana jotzen ahal dutela egin diezaioketen galderei erantzunak ekar ditzan eta interesatuak diren kideentzat bilkura berezi bat antolatzea proposatzen du.

#### 5-2- FICOBA kolokioa

FICOBA fundazioak « Aldaketa klimatikoa eta itsasbazterra » gaiaren inguruan kongresu bat antolatzen du Irunen, 2015eko martxoaren 10 eta 11n. Kolokio honek, eskudun diren enpresak, adituak eta instituzioak biltzea eta aukera ekonomiko berriak argiki garatuz doan jarduera arlo batean aurkitzea dauzka xedetzat.

IZE-ko kide batzuk jadanik sartuak dira hauetan bai eta Akitania Eskualdeko Kontseilua ere. Kontseilu nagusiak IZE-ko kideei proposatzen die kolokio horren antolaketari emanak izanen zaizkion ondorioen berri ematea eta burutuko diren mintzaldien edukia helaraztea.

Ainhoa Iraolak (Gipuzkoako Foru Aldundia) zehazten du Foru Aldundiak ere kolokio horretan parte hartzen duela. Azpimarratzen du ere gertakizun hau funtsezkoa dela, enpresak bertan egongo direlako hunkituak diren kolektibitate eta administrazio desberdinekin batera.

#### 5-3- Telespazioren lanen aurkezpena (Ik. honi erantsi diaporama)

Uztailan burutu azken Erakunde kontseiluan proposatu bezala, TELESPAZIO enpresak EARTHLAB Ocean egitasmoa aurkezten du.

EARTHLAB TELESPAZIOk garatu ikerketa baliagarri zentro bat da eta honen helburua espazioko eta/edo aireko irudigintza erabiltzailearen zerbitzuarekin egokitzea da.

Akitania Eskualdekiko Hitzarmen baten markoan, hiru lehentasunezko tematika identifikatuak izan dira: oihana, mahastia eta itsasbazterra.

EARTHLAB Ocean itsasbazterra atal honi dagokio, eta Kontseilu nagusiak eta Euskal Kosta Aturri Hiriguneak ere sustengatzen dute.

Zerbitzu eta itsasbazterreko aplikazioko « I&G » lau garapen ardatz horrela identifikatuak izan dira eta bi urtez (2013-2015) landuak izanen dira: lurraren mugimenduak, uren kalitatea, kostako marraren jarraipena eta itsasoaren aurkako defentsa obrak.

Bakoitzerako, gune pilotoak hautatuak izan dira Euskal Kostan eta IZE-ko egitura kide (BRGM, CASAGEC eta Rivages Pro Tech) desberdin batzuen arteko lankidetzak bat abian ezartzeko aukera ireki dute.

Lan hauen aurrerapenak saioan proposatuak izan dira eta honi erantsi dokumentuan ekarriak.

Solasaldien ondotik, erabakia da TELESPAZIOk bere lankidetzak segi ditzan tokiko mailan eta antzeko gaiak lantzen dituzten AZTI eta UPPAko SIAME-IVS laborategiarengana (Stéphane Abadie) jo dezan.

#### Ondorioa

Beste Erakunde kontseilu bat aurreikusia da datorren udaberrian eta bertan, puntu bat egiten ahalko da koordinatzailearen kontratatzeaz eta IZE-ko plataformaren pilotoaren aurrerapenez.